

**KIROL EREMUKO  
BARNE ARAUDIA**



**REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SAD**

# **KIROL EREMUKO BARNE ARAUDIA**

1. Artikulua.- Xedea eta aplikazio eremua.

## **I. TITULUA.- REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADeko INSTALAZIOETAN SARTZEKO ETA BERTAN EGOTEKO BALDINTZAK**

### **1. Kapitulua.- Sarbidea**

- 2. artikulua.- Eremuan sartzeko baldintzak.
- 3. artikulua.- Sartzeko debekuak.
- 4. artikulua.- Sarbidea kontrolatzeko dispositiboak.

### **2. kapitulua.- Egotea**

- 5. artikulua.- Instalazioetan egoteko baldintzak.
- 6. artikulua.- Kirol instalazioetatik kanporatzea.

## **II. TITULUA.- BARNE DIZIPLINA ERREGIMENA, REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADeko ABONATUEI APLIKAGARRIA**

### **1. Kapitulua.- Arau hausteak eta zigorrak**

- 7.-. Artikulua – Arau hausteak.
- 8. artikulua.- Arau hauste arinak
- 9. artikulua.- Arau hauste larriak
- 10. artikulua.- Arau hauste oso larriak
- 11. Artikulua – Zigorrak
- 12. artikulua.- Zigorren graduazioa
- 13. artikulua.- Preskripzioa
- 14. artikulua.- Diziplina erantzukizuna azkentzea

### **2. kapitulua.- Diziplina prozedura**

- 15. artikulua.- Prozedura abiatzea eta diziplina eskumena.
- 16. artikulua.- Diziplina espedientea abiatzeko akordioa.
- 17. artikulua.- Jakinarazpenak
- 18.- Artikulua - Alegazioak
- 19. artikulua.- Probaldia
- 20. artikulua.- Ebazpen proposamena
- 21. artikulua.- Espedientearen ebazpena
- 22. artikulua.- Zigor ebazpenak gauzatzea
- 23. artikulua.- Aparteko errekurtsioa
- 24. artikulua.- Zigorren preskripzioa

## **1. ARTIKULUA.- XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

- 1.1 Erregelamendu honek REAL SOCIEDADeko instalazioetan sartzeko, egoteko eta erabiltzeko baldintzak arautzen ditu, baita aipatu instalazioetan eta inguruetan egiten diren arau hausteen inguruko diziplina baldintzak ere.
- 1.2 Xede du REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko instalazioetan sartzeko asmoa duen edo sartu den pertsona orok bete beharko dituen betebeharrak ezartzea ekintza, ospakizun eta ekitaldietan, kirolari buruzkoak edo kirolaz gaindikoak izan, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek antolatu eta kudeatuak, edo hirugarren batek Klubaren partaidetzarekin, aipatu instalazioetan segurtasuna eta ordena publikoa bermatzeko helburuz.
- 1.3 Erregelamendu hau aplikagarri zaio REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko instalazio eta ondasunak diren aktibo higiezin eta higigarriei, Klubak titulartasuna, erabilera lagapena edo jabetza badu, edozein tituluren bidez dela ere (aurrerantzean "instalazioak" izendatuko dira). Gaur egun instalazioen parte dira Anoetako Udal Estadioa, Zubietako Kirol Instalazioak, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko denda ofizialak, eta horietan dauden material, ekipamendu eta dispositiboak.
- 1.4 Erregelamendu hau subjektu gisa aplikatuko zaie, oro har, honako hauei:
  - a. Klubeko instalazioak erabiltzen dituztenei, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko denboraldiko abonatua izan edo ez, eta erabilera hori kirol ikuskizun bat dela eta egiten den, edo ez.
  - b. Edo bere abonatu kondizioa edozein modutan erabiltzea REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek bere abonatuei eskaintzen dizkien abantaila, baldintza eta eskubide bereziak hirugarren batzuei mesede egiteko edo onura emateko. Asmo argigarri hutsarekin eta mugarik ezarri gabe, subjektu erantzuleak izango dira nahita edo arduragabeki hirugarren batzuei abonamendu propioa ematen dietenak, Klubak antolatzen duen edozein ekitalditara sartzeko, edo Klubak eskaini litzakeen deskontu berezien onura jasotzeko bere ekitaldiarako sarreraren erosketan, denda ofizialetan, eta antzeko izaerako beste batzuetan.

Erregelamendu honen efektuetarako subjektu erantzuleztat jotzen da REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko denboraldiko abonamendua izan edo ez, edozein mota edo izaerako bortizkeria ekintzatan parte hartzen duen pertsona oro, ordena

publikoko indarrek edo Klubeko segurtasun arduradunek identifikatu badute erregelamendu honetan jasotako edozein jokabideren egile material gisa, kirol ikuskizun baten ospakizunean, horiek Estadioan zein kanpoan egiten direla ere, edo REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEko taldeek parte hartzen duten beste kirol eremuetan.

Halaber, erregelamendu honen efektuetarako berdin-berdin joko da subjektu erantzuleztat, behar bezala jokatu ez eta REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEko denboraldiko abonatua izanik, partiduetarako sarrerak abonatua bera ez diren hirugarren batzuek erabiltzeko eskuratzen duen pertsona oro, hirugarren horik Erregelamendu honetan jasotako arau hausteren bat egiten dutenean.

- 1.5 Kirol Eremuaren Barne Erregelamendu honetan zehaztutako diziplina eskumenaren eremua bertan zerrendatutako arau hausteetara hedatzen da, sartzeko dagokion sarbide titulua (sarrera edo abonamendua) ordaindu ondoren, edo sarbide libre eta doako bidez sartzan ari diren edo sartu diren pertsonak egin badituzte, kasuaren arabera REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEko instalazioetan sartu, egon eta erabiltzeari dagokionez, edo beste moduren batean Klubeko instalazio eta ondasun aurka eraso egiten duten pertsonak, araudi nazional. Autonomiko edo lokalean tipifikatutako arau hausteen eta prozeduren kaltetan izan gabe.
- 1.6 Gainera, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEk ezbairik gabeko arbuio eta aurkakotasuna adierazten dio edozein motako indarkeria berbal edo fisikori, eta ekintza arrazista, xenofobo edo intolerante orori. Kirol eremu batera joatea REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEko taldeen babes keinu izan behar du, eta ez dira inolaz ere onartuko kirolaz bestekoak diren izaera komertzial, politiko, sozial, erlijioso edo aldarrikatzaileak diren pankartak edo antzeko elementuak. Salbuespen gisa onartu ahalko dira, betiere Klubaren aurretiazko baimenarekin, elkarte, gobernuz kanpoko erakunde edo beste klub batzuekiko babes keinuak.
- 1.7 Erregelamendu hau aplikaziokoa den araudia aplikatzean eta defendatzean oinarritzen da, baita horien balizko arau aldaketa eta garapenetan ere.
  - a. 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa
  - b. 203/2010 Errege Dekretua, otsailaren 26koa, Kirolean egon daitekeen bortizkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurka egiteko Araudia onetsi duena

- c. 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena, Euskadikoa;
- d. 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa, Euskadikoa; eta
- e. 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena (14/1998 Legea).

## **I. TITULUA.- REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADeko INSTALAZIOETAN SARTZEKO ETA BERTAN EGOTEKO BALDINTZAK**

### **I. KAPITULUA.- SARBIDEA**

#### **2. ARTIKULUA.- EREMUAN SARTZEKO BALDINTZAK**

- 2.1 Erabat debekatuta dago kirol instalazioetan objektu hauetako ezein sartzea:
- a. Edozein motako armak edo beste era bateko objektu edo tresnak, horien emaitza bera sortzerik badute.
  - b. Bengalak, petardoak, lehergailuak, edo, oro har, produktu sukoiak, ke sortzaileak edo korrosiboak.
  - c. Edari alkoholikoak, drogak, estupefazianteak, substantzia psicotropikoak, antzeko beste substantzia, edo horien eraginpean egotea.
  - d. Pankartak, banderak, sinboloak edo bestelakoak, indarkeriara bultzatzen badute, iraingarriak badira, laido, mehatxu, irainak badituzte, edo edozein motako diskriminazioa badakarte bere arraza, erlijio, sinesmen pertsonal edo sexu orientazioagatik, edo edozein instituzioko pertsona fisiko edo juridikoren duintasunaren aurka jotzen badute, edo kirol ikuskizun edo ekitaldian parte hartzen ari diren pertsonetikiko ageriko mespretxu ekintza bat direnean.
  - e. TB kamara edo mikrofono profesionalak, klubaren baimena izan ezean, baita partidako edozein irudi edo soinu emititzea, erreproduzitzea edo hirugarrenei hornitzea.
  - f. Debekatuta dago kopuru txikitik kaltegarriak izan ez arren, behin sartuta eta nahastuz segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen elementuak sartzea, hala nola tenis eta golf pilotak, baloiak, komuneko papera eta antzeko beste batzuk.
  - g. Legez edo araudiz debekatuta beste edozein elementu.

- 2.2 Halaber, debekatuta dago ikusleak partidari (edo horren zati bati) lotutako ezein datu edo estatistika jasotzea edo ematea baimenik gabe, edozein bitarteko material, elektronikoa edo bestelako izaerakoekin, ez bada bere erabilera pertsonal eta pribaturako. Ikusleren bat baimenik gabe datuak jasotzen eta/edo ematen antzemango balitz, estadiotik kanporatu ahalko dute autoritateen eskariz (Klubeko enplegatuak, segurtasun kideak).
- 2.3 Debekatuta dago sarrerak edo abonamenduak birsaltzea edo transferitzea Klubaren berariazko baimenik gabe.
- 2.4 Debekatuta dago jarraitzaileen jardueren Erregistro Liburuan inskribatu gabeko talde edo zaletu kolektiboek diren adierazpenak egitea edo elementuak erakustea. Erregistro Liburuan inskribaturik ez dauden talde edo jarraitzaile kolektiboak ezin izango dira halakotzat hartu, eta beraz, kirol eremuaren barruan ez da onartuko inolako adierazpen kolektibo edo pertsonal, ezta inskribatu gabeko taldearen elementuak erakustea, izan kolektibo edo banakakoak.
- 2.5 19/2007 Legea bete beharrez, uztailaren 11koa, kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa, Klubak tratua izango du eta laguntza, estaldura eta azpiegituren edo edozein motako baliabideen hornidura (adb: garraio bideak, sarrerak eskuratzeko orduan lehentasuna, Klubaren kontrolpeko espazioak materiala biltegitratzeko, eta kasuan kasu ados litezkeen beste laguntza mota batzuk) emango die soil-soilik Klubeko lagunarte edo elkarte ofizial gisa Erregistro Liburuan inskribatuta dauden jarraitzaile talde edo kolektiboak. Erregistro Liburuan inskribatuta ez egoteak, bertako kide izan behera uzteak, edo aipatu araudian tipifikatutako arau hausteren bat egiteak, edozein laguntza, estaldura eta hornidura kentzea ekarriko du.
- 2.6 Kirol eremura animatzeko elementu bereziak sartzeko, hala nola bonboak, danborrak, eskuko megafonoak edo antzeko elementuak, baldintza hauek bete behar dira:
- Horien erabilera soilik Erregistro Liburuan inskribatutako zaletu talde edo kolektibo baten bidez egingo da.
  - Beha beste ekintza egingo dira animatzeko modu egokian erabiltzeko arduraren duen pertsona identifikatzeko, indarreko legediari jarraikiz.
  - Segurtasun koordinatzaileak eta/edo Klubak nahi beste segurtasun neurri gehigarri ezarri ahalko ditu, partidaren inguruabarren arabera, partidara bertaratzen direnen eta parte hartzen dutenen segurtasun baldintzak

indartze aldera.

- 2.7 Erregistro Liburuan inskribatutako zaleen talde edo kolektiboenak diren elementuak kirol eremu barruan erakusteko baimena, baldintza hauen arabera izango da:
- a. Kirol eremu barruan edozein elementu kolektibo erakutsi nahi bada, indarreko legedia betetzeaz gain, Klubak horren berri izan beharko du, zeinak erabakiko duen, kasuan kasu, sarrera ematea eta erakustea, kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako legedia betetzen duenean, klubeko barne araudiaz gain. Jasotzen duen edukia edo erabiltzen den sinbologia REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEko taldeei egin beharko die erreferentzia, eta, inolako momentutan, ezin izango dio erreferentzia egin talde aurkariari.
  - b. Klubak egoki deritzonean, Segurtasun Koordinatzaileari sartu eta erakutsi nahi den elementuaren edukia eta ezaugarriak jakinaraziko dizkio, beharrezkoa balitz dagokion baimena jasotzeko.
  - c. Jasoak izateko makila behar duten banderak kirol eremuan sartzeko, plastikozko materialekoak izan beharko dute, ez zurrinak eta barne-hutsak, gehienez ere 1,5 metroko luze, eta 2 zentimetro baino gutxiagoko diametrokoak.
  - d. Pieza bakarraz edo hainbatez osatutako dimentsio handiko elementuak sartu eta erakusteko, orain arte aipatu baldintzez gain, beharrezkoa izango da Klubari aurkeztea, aurretiaz onartu dezan instalatzeko, hedatzeko eta jasotzeko plan bat, ikusleen bideak eta ebakuaziokoak ez oztopatzeke. Elementuaren instalazioa ate irekiera baino lehenago egin beharko da nahiko denboraz, eta ezin izango da zaildu ikusleen fluxu eta zirkulazioa eremuaren barruan.

### **3. ARTIKULUA.- SARTZEKO DEBEKUAK**

- 3.1 REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEk antolatu eta kudeatutako kirol ikuskizun, lehiaketa eta ekitaldiak egiten diren kirol instalazioetara sarrera debekatuko zaio ondoko egoera hauetakoren batean dagoen pertsona orori:
- a. Kasuan kasuko eremura sartzeko titulu balioudunik ez izatea.
  - b. Legez edo erregelamenduz zehatutako jokabide debekatuak gauzatzea.
  - c. Zigor ebazpenen ondorioz edozein kirol eremutan sartzeko debekua izatea, izaera irmoz eta/edo Zigorren Erregistro Zentralean inskribatuak egotea aipatu debekuekin.

- d. Halaber, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek zigortutako bazkide edo abonatu orori debekatuko zaio sarrera erregelamendu honen arabera, Klubeko instalazioetara sartzea debekatuz.
  - e. Liskar, borrokaldi edo desordena publikoetan parte hartu izana kirol eremu edo horien inguruetan, eta partidara bertaratzen direnentzat eta parte hartzen dutenentzat segurtasun arrisku bat izatea.
  - f. Sarrera debekatzeko eskubideari buruzko araudiak ezartzen duenari jarraikiz, sarrera debekatuko zaie, halaber, kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako 19/2007 Legean eta aplikagarria den legedi autonomikoan jasotako arau hauste oso larriren batengatik salaketa jaso duten pertsonen Ondorio hauetarako, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko diziplina organoak onartu egingo du salaketa jartzen duen autoritatearen jakinarazpena, eta sartzeko debekua emango du.
- 3.2 Segurtasun arrazoiak tarteko Segurtasun Koordinatzaileak hala xedatzen duenean, kasuan kasuko talde bisitariaren arropa eta osagarriak begi bistan daramatzaten talde bisitariaren zaletuek, sarrera tituluak eskuratu beharko dituzte zaletu bisitariarentzako gordetako eremuan, oro har debeku izango dutelarik bertako taldearen zaletuak jartzen diren tribunetan sartzea. Hala egin ezean, eta Segurtasun Koordinatzaileak aplikagarri deritzon irizpideak haztatuz, aipatu zaletuak behar den moduan birkokatuko dira, edo estadiora sartzea debekatu ahalko zaie.

#### **4. ARTIKULUA.- SARBIDEA KONTROLATZEKO DISPOSITIBOAK**

- 4.1 Bertaratzen diren pertsonak egoki diren kontrolei men egitera behartuta daude instalazioetan sartzeko baldintzak eta debekuan egiaztatzeko, eta bereziki:
- a. Telebista zirkuitu itxien bidez instalazioetan, horien sarbideetan eta barruan grabatuak izateko;
  - b. Segurtasun dispositiboetara edo beste neurri operatiboetara men egiteko, indarreko legediari jarraikiz; eta
  - c. Erregistro pertsonalei men egiteko, sarbide baldintzak egiaztatzei begira.
- 4.2 Kirol instalazioetan sartzeko debeku eta baldintzen betetzea ziurtatu asmoz, Klubeko segurtasun arduraduna polizia autoritatearen segurtasunaren koordinazioaren ardura duten pertsonekin batera, zehaztuko dute kirol ikuskizun edo ekitaldi bakoitzean abian jartzea kontrolak, miaketak, segurtasun dispositiboak



edo har litezkeen beste neurri operatiboak, momentu oro indarrean dagoen legediaren arabera.

- 4.3 REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek beretzat gordetzen du kirol eremuan sartzeko kontrol eta kudeaketa teknologia berriak ezarri eta aplikatzeko ahalmena, hala nola antzemate biometrikoko sistemak, txartel adimentsuak, edo har litezkeen beste neurri batzuk, momentu oro indarrean dagoen legediari jarraikiz.

## **2. KAPITULUA.- EGOTEA**

### **5. ARTIKULUA.- INSTALAZIOETAN EGOTeko BALDINTZAK**

- 5.1 Instalazioetan egoteko baldintza orokorra da Kirol Eremuko Barne Araudi hau errespetatu eta betetzea, baita segurtasun indarrek eta Klubeko segurtasun arduradunek, plantillakoek edo kontratatutakoek ematen dituzten kokapen eta segurtasunari buruzko jarraibide eta aginduak ere.
- 5.2. Egoteko baldintzak jarraian adierazitakoak dira, mugarik ezarri gabe:
- a. Ordena publikoa ez nahastea;
  - b. Liskarrak edo borrokaldiak eta abiatzea edo horietan parte hartzea;
  - c. Indarkeria ekintzarik ez egitea, ezta inolako erasorik ere (fisikoak edo ahozkoak);
  - d. Ez abestea kanturik ezta esamolderik botatzea ere, indarkeriara bultzatzen badute, iraingarriak badira, laido, mehatxu, irainak badituzte, edo edozein motako diskriminazioa badakarte bere arraza, erlijio, sinesmen pertsonal edo sexu orientazioagatik, edo edozein instituzioko pertsona fisiko edo juridikoren duintasunaren aurka jotzen badute, edo kirol ikuskizun edo ekitaldian parte hartzen ari diren pertsonetako ageriko mespretxu ekintza bat direnean.
  - e. Ez erakustea pankarta, bandera, sinbolo edo beste bereizgarriarik, aurreko "d" puntuan jasotako izaerako mezuak jasotzen badituzte.
  - f. Kirol instalazioetan ez botatzea inolako objekturik ikusleak dauden eremuetara, edo kirolariak dauden eremuetara, arbitroen taldeko kideak daudenetara, edo instalazioan dauden pertsonak daudenetara;
  - g. Kirol eremuetan baimenik gabe ez sartzea joko zelaian, kirol ikuskizun edo ekitaldiarekin zerikusia duten langileentzako gordetako espazioetan, edo ikusleentzako bereziki gordeta ez dagoen beste edozein espaziotan.
  - h. Ez edukitzea, aktibatzea, edo botatzea edozein arma mota, edo beste

edozein motako objektu edo instrumentuak, ondori berdinak eragiten badituzte.

- i. Ez edukitzea, aktibatzea edo botatzea bengala, petardo, lehergailu, edo, oro har, produktu sukoi, ke sortzaile edo korrosiborik.
- j. Ez kontsumitzea edari alkoholikorik, ez droga toxikorik, estupefazienterik edo substantzia psikotropikorik; eta
- k. Eremuan sartzeko tituluari dagokion klase eta tokiko jarlekuak okupatzea beharrezkoa balitz, baita aipatu titulua erakustea segurtasun indar eta gorputzen edo antolatzailearen edozein enplegatu edo laguntzaileren eskaerari jarraikiz, eta ez jartzea sarrera tituluan zehaztutako jarlekua ez den beste batean, ezta eskailerak, bomitorioak edo larrialdi eta ebakuazio irteerak okupatzea ere, ekitaldi batean zehar.

## **6. ARTIKULUA.- KIROL INSTALAZIOETATIK KANPORATZEA**

- 6.1 Erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, aipatu ez betetzeak lege penaletan, arau hauste administratiboetan, edo erregelamendu honen arau haustean tipifikatutako delitu edo faltak izanez gero eragin ditzaketen ondorioez gain, arau haustea Klubeko instalazioetatik berehala kanporatzea ekarriko du, diziiplina espedientea eta aplikazioak dakizkikeen zigorrak ezartzearen kaltetan izan gabe.
- 6.2 Bertaratzen direnek kirol eremua baketsuki husteru eta inguruak atzean uztera behartuta daude segurtasun arazoak medio hori eskatzen zaienean, edo aurretik aipatu egote baldintzak betetzen ez direnean.

## **II. TITULUA.- BARNE DIZIPLINA ERREGIMENA, REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SAdEko ABONATUEI APLIKAGARRIA**

### **I KAPITULUA.- ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

#### **7. ARTIKULUA – ARAU HAUSTEAK**

- 7.1 REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko erabiltzailek arau hausteengatik jaso litzaketen zigorrak hiru kategoriatan sailkatuko dira (arinak, larriak eta oso larriak) honakoen arabera: garrantzia, kalte fisiko edo materialak eragiteko edo kirol ekitaldiaren

garapenean eragiteko arriskua, berrerortzea, nahitasuna, larritasuna, erantzukizuna alda dezaketen egoerak eta ondorioak.

- 7.2 REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko irudia, prestigioa eta adeitasun soziala zaintzeko, Erregelamendu honetan arau haustetzat jotzen ditugun jokabideek diziplina trataera berbera izango dute abonatu batek gauzatzen dituenean Klubeko taldeek parte hartzen duten kirol ikuskizun edo ekitaldietan edo horren inguruan, bisitari moduan, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLekoak ez diren kirol instalazioetan, edo bide publikoan.

## **8. ARTIKULUA.- ARAU HAUSTE ARINAK**

8.1 Arau hauste arintzat joko dira jarduketa hauek:

- a. Klubak eskainitako instalazio edo zerbitzuen erabilera desegokia, edo elkarbizitza eta jarduerak aztoratzea, garatzen diren tokian garatzen direla, gainerako erabiltzaileei eragozpen arinak eraginez;
- b. Identifikatuak dauden Klubeko enplegatuekin lankidetzan aritzeari uko egitea, edo Ertzaintza edo Udaltzaingoarekin, Klubeko instalazioetan sartzeko, egoteko eta erabiltzeko ordena errazte aldera;
- c. Oztopo egitea, edozein ikuskizun mota garatu bitartean egokitutako jarlekuan ez egoteagatik: pasabideak, bomitorioak edo pasatzeko leku diren beste batzuetan, zirkulatzeko eta ebakutzeko beharrezko direnak;
- d. Denboraldiko paseak, abonauk edo sarrerak modu okerrean erabiltzea (bazkide edo abonatu txartela lagatzea haien egoera pertsonala dela eta lagapena egiten duen bazkideri dagokiona baino prezio altuagoko abonua edukitzeko derrigorra dutenei edo hala dagokienei, betiere ez badago diru ordainketarik edo bestelako kontraprestaziorik lagapenaren truke, salbu Klubak berariaz baimendutako kasuetan).
- e. Errespetu falta edo begirunerik eza arina Klubeko enplegatu, kontseilari edo kolaboratzaileekiko.

## **9. ARTIKULUA.- ARAU HAUSTE LARRIAK**

9.1 Arau hauste larritzat joko dira jarduketa hauek:

- a. Hutsegite arinetan berrerortzea;
- b. Edari alkoholikoak sartzen saiatzean antzematea, edukitzea eta/edo kontsumitzea REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko instalazioen barruan eta horretarako berariaz prestatutako OPI eremuetatik kanpo. Halaber, edozein

substantzia debekaturen kontsumoa, Euskadiko 1/2016 Legeari jarraituta, Adikzioei buruzkoa;

- c. Kalte edo galera arinak eragitea Klubeko instalazio eta altzarietan;
- d. Errespetu falta edo begirunerik eza larria Klubeko enplegatu, kontseilari edo kolaboratzaileekiko, edo Estatuko segurtasun indarrekiko edo beste edozein zerbitzu publikorekiko;
- e. Arau hauste oso larri gisa tipifikatutako jokabideak gauzatzea, alegia, kaltea, arriskua, perila eragin dezaketenak, edo kirol jarduera edo ekitaldiaren garapen normala eragotzi edo zaildu dezaketenak, baina aipatu egoerak gertatzen ez direnean.
- f. Erregelamendu honetako 8. artikuluan ezarritako jokabideetakoren bat gauzatzea, betiere horiek beraiek oso larritzat jotako arau haustea ez bada.

## **10. ARTIKULUA.- ARAU HAUSTE OSO LARRIAK**

10.1 Arau hauste oso larritzat joko dira jarduketa hauek:

- a. Arma zuri edo suzkoak sartzen saiatzen antzematea edo horiek edukitzea, petardoak, ke poteak, bengalak edo antzeko edozein material pirotekniko, manipulatu, lehertu edo deflagratu izan edo ez, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEko instalazioetan;
- b. Kalteak eragiteko ahalegin edo saiakera Klubeko instalazioetako ondasun eta objektuei, jokalariei, arbitroei, kontseilariei, entrenatzaileei, enplegatuei, eta ekitaldiaren antolaketa eta/edo garapenari lotutako edozein pertsoneri, baita antolatutako ikuskizunetara bertaratzen direnei eta ikusleei.
- c. Kirol eremu eta inguruetan liskar, borrokaldi edo desordena publikoetan aktiboki parte hartzea edo sustatzea;
- d. Mehatxuak, irainak edo mespretxu mezuak egitea jokalaria, arbitro, zuzendaritza kide, entrenatzaile, Klubeko enplegatu, zale aurkari eta ekitaldiaren antolaketa eta/edo garapenarekin harremana duen edozein pertsonari, baita kirol ikuskizunetara bertaratzen direnei eta ikusleei;
- e. Erregelamendu honetan ezarritako sartzeko eta egoteko betebeharrak ez betetzea;
- f. Klubeko arduradunek edo segurtasun gorputz eta indarrek agindutako hustuketa agindua ez betetzea;
- g. Adierazpen edo irainak, edozein motako diskriminazioa badakarte bere arraza, erlijio, sinesmen pertsonal, sexu orientazio edo desgaitasunagatik, edo edozein instituzioko pertsona fisiko edo juridikoren duintasunaren aurka jotzen badute, izan publiko edo pribatu, kasu oro oso larritzat joko dira.

- h. Kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia dela eta ezarritako zigorrak ez betetzea, Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera;
- i. Larriki eragozteak edo oztopatzea Klubak sustatutako jardueren funtzionamendu normala;
- j. Kirol instalazioetako joko zelaira sartzea, banaka edo taldean, kirol ekitaldi baten harira.
- k. Kirol instalazioetan kirol ekitaldi baten edo kirolekoa ez den baten harira zaletuen artean edo joko zelaira objektu mingarriak botatzea, gainerako ikusleei, segurtasun kideei edo Klubeko langileei min emateko moduan, edo jokalaria, arbitro eta antzeko beste batzuei.
- l. Kalte edo galera larriak eragitea Klubeko instalazio eta altzarietan;
- m. Erasoak edo indarkeria ekintzak egiteko aldeko giroa sortzea edo sustatzea, adierazpen, manifestazio publiko edo beste edozein moduren bidez, edo Erregelamendu honetan arau haustetzat hartzen den beste edozein jarduera, edo, edozein kasutan horien edonolako sustapena, izan ekitaldi edo ikuskizunen aurretik edo ondoren, edo kirol eremuetatik kanpo gertatu badira ere.
- n. Kalte, arrisku edo peril egoeraren bat suertatzea pertsona edo gauzentzat kantuak abesteagatik edo soinuk edo adierazpenak botatzeagatik, baita kirol eremuetan pankartak, banderak, sinboloak edo bestelakoak erakustea indarkeriara bultzatzen badute, iraingarriak badira, laido, mehatxu, irainak badituzte, edo edozein motako diskriminazioa badakarte bere arraza, erlijio, sinesmen pertsonal, sexu orientazio edo desgaitasunagatik, edo edozein pertsona fisiko edo juridiko, edo instituzioren (publiko edo pribatu) duintasunaren aurka jotzen badute, edo kirol ikuskizun edo ekitaldian parte hartzen ari diren pertsonetako ageriko mespretxu ekintza bat direnean; eta
- o. 19/2007 Legean, uztailaren 11koan, jasotako jokabide debekatueta edozeinetan erortzea, RFEFeko Diziiplina Kodean bezala, horiek eginez entitatearen irudi eta izen onak eragin negatiboa jaso badezake.

## **11. ARTIKULUA – ZIGORRAK**

- 11.1 Erregelamendu honetan araututako arau hausteek ekar litzaketen zigorrak, autoritate administratibo edo judizialek zehatz litzaketen zigor administratibo edo penalekiko independente eta autonomoak dira, eta diziiplina erregelamendu honen araberrako barne izaerako zigor bat betetzeak ez du eraginik izango balizko zigor

administratibo edo judizial batekiko.

11.2 Zigor guztiak, behin prozesua amaituta, Jarraitzaileen Erregistroan jasoko dira 203/2010 EDan jasotako ondorioetarako, besteak beste, arau hauste eta zigorren erantzukizunaren eta preskripzio epeen zenbaketan aldaketak eragin ditzaketen arrazoiak antzemateko. Hala ere, hutsegite arinetarako 12 hilabeteko epea igarota, 24 hilabetekoa larrietarako, eta 3 urtekoa oso larrietarako, ez dira aintzat hartuko berrerortze ondorioetarako.

11.3 Egindako hutsegiteen larritasun eta inguruabarren arabera, Klubak ezarri ahalko ditu, aurreikusitakoaren artean askatasunez aukeratuz, honako zigor hauek:

11.3.1 Arau hauste arinengatik:

- a. Ohartarazpen idatzia, argudiatua eta arrazoitua, zigorraren egintzak zehaztuz; edo
- b. Abonatu eskubideen gabetzea edo Klubeko instalazio guztietara sartzeko debekua gehienez ere hilabetez, edo gehienez ere REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeke lehen taldeak etxean jokatzeko dituen 3 partida, den lehiaketakoa dela ere, ordainketa ekonomikorako eskubiderik gabe.

11.3.2 Arau hauste larriengatik:

- a. Abonatu eskubideen gabetzea edo Klubeko instalazio guztietara sartzeko debekua gehienez ere 6 hilabetez, edo REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeke lehen taldeak etxean jokatzeko dituen 3 eta 18 partida artean, den lehiaketakoa dela ere, ordainketa ekonomikorako eskubiderik gabe.

11.3.3. Arau hauste oso larriengatik:

- a. Abonatu eskubideen gabetzea edo Klubeko instalazio guztietara sartzeko debekua 6 hilabete eta 2 urteren artean, edo REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeke lehen taldeak etxean jokatzeko dituen 18 eta 72 partida artean, den lehiaketakoa dela ere, ordainketa ekonomikorako eskubiderik gabe.
- b. Klubeko abonatu izaeraren galera, eta berriz izateko aukerarik eza, edo behin betiko Klubeko instalazioetara sartzeko debekua, ordainketa ekonomikorako eskubiderik gabe.

11.4 Erregistro Liburuan erregistratutako lagunarte bateko bi kide edo gehiago izaera

larriko edo oso larriko zigorra jasotzen duten kasuetan, lagunarte horrek zigor hauek jasoko ditu:

- a. Arau hauste larriengatik: Klubak baliogabetzea lagunarte edo talde izaerako aitortza hilabete eta sei hilabete eta bi urteko epealdi batean. <sup>[L]</sup><sub>[SEP]</sub>
- b. Arau hauste oso larriengatik: Klubak baliogabetzea lagunarte edo talde izaerako aitortza hilabete eta sei hilabete eta bi urteko epealdi batean, edo lagunarte edo talde izaerako aitortza behin betiko baliogabetzea. <sup>[L]</sup><sub>[SEP]</sub>

11.5 REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEk zigortutako pertsona fisiko eta lagunarteek jarraitzaile gisa egiten dituzten jardueri ez die mesede egingo inolako sustapen eta laguntza neurriekin, gutxienez ere ezarritako zigorraren bikoitzaren baliokide izango den epealdi batean.

11.6 Artikulu honetan zarritako zigorraren kaltetan izan gabe, REAL SOCIEDAD DE FUTBOLEk ustezko arau hauslea den bazkide edo abonatuari dagozkion salaketak jartzeari ekingo dio erakunde judizial edo administratibo eskudunen aurrean, baita jasandako kalte-ordainen erreklamazioa ere.

## **12. ARTIKULUA. ZIGORREN GRADUAZIOA**

12.1 Ezarri beharreko zigorrak zehaztean, proportzionaltasun egokia zaindu beharko da arau haustea eragin duen gertaeraren larritasunaren eta zigorraren artean, irizpide hauen arabera graduatuz:

12.1.1 Erantzukizunaren inguruabar aringarriak dira:

- a. Damu espontaneoak;
- b. Arau haustea gertatu aurre-aurretik, neurriko probokazioa egon izana;
- c. Aurretik zigorrik jaso ez izana; eta
- d. Eragindako kalte-ordainak berehala eta boluntarioki erreparatzea, halakorik posible denean.

12.1.2 Inguruabar larrigarriak:

- a. Berrerortzea: Hutsegitearen egilea aurrez zigortua izan bada ebazpen irmoarekin larritasun berdineko edo handiagoko arau hausteagatik, 12 hilabeteko epean arau hauste arinen kasuan, 24 hilabete arau hauste larrietarako, eta 36 hilabete arau hauste oso larrietarako, zigorra irmoa denetik zenbatzen hasita.

### **13. ARTIKULUA.- PRESKRIPZIOA**

- 13.1 Erregelamendu honetan tipifikatutako arau hausteak epe hauen baitan preskribatuko dira:
- a. Arau hauste arinak sei hilabeteko epean;
  - b. Arau hauste larriak urte beteko epean; eta
  - c. Arau hauste oso larriak bi urteko epean.
- 13.2 Arau hausteen preskripzio epea arau haustea gauzatu den egunetik zenbatzen hasiko da. Preskripzio epea eten egingo da interesdunari zigor prozeduraren hasiera eman eta aipatu prozedura ireki izana jakinarazi izanaren segurantzia sinesgarria dagoenean.

### **14. ARTIKULUA.- DIZIPLINA ERANTZUKIZUNA AZKENTZEA**

- 14.1 Diziplina erantzukizuna azkentzen da:
- a. Zigorra betetzen denean;
  - b. Arau hausteak edo zigorrak preskribatzen direnean;
  - c. Erruztatutako pertsonaren heriotzagatik; edo
  - d. Klubeko Administrazio Kontseiluak zigorra kentzeagatik edo indultua emateagatik. <sup>L</sup>SEP

## **2. KAPITULUA. DIZIPLINA PROZEDURA**

### **15. ARTIKULUA.- PROZEDURA ABIATZEA ETA DIZIPLINA ESKUMENA.**

- 15.1 Prozedura ofizios abiarazi ahal izango da, Ertzaintzaren Segurtasun Koordinatzaileak egindako Partidaren Aktan edo REAL SOCIEDAD DE FUTBOLen Segurtasun Departamentuaren igorritako Segurtasun Aktan jasotako gorabehera baten ondorioz edo eskari arrazoitu baten edo salaketa baten bidez alde batek eskatuta, eta horretarako Diziplinarako Barne Batzorde bat eratuko da. Batzorde horren osaera aldatu daiteke denboraldi berean, Administrazio Batzordearen iritziz (Klubeko Zuzendaritza Nagusia edo Klubaren exekutiboa).
- 15.2 Araudi honetan aurreikusitako ondorioetarako, bai Ertzaintzaren Segurtasun Koordinatzaileak egindako Partidaren Akta bai REAL SOCIEDAD DE FUTBOLen



Segurtasun Departamentuak igorritako Segurtasun Akta egiazkotzat joko dira, hutsegite material nabaririk ez badago behintzat, zeina Zuzenbidean onartzen den edozein bidetatik egiaztatu ahal izango baita.

- 15.3 Arau hauste bat egin dela jakitean, Diziplinarako Barne Batzordeak, Klubeko abonatuaren masa sozialaren erantzulea den heinean, aurretiazko informazioa eskuratzeko barne prozesu bat ekingo dio, kasuan-kasuan diziplina espedientea ireki behar den edo jarduketak artxibatu behar diren erabakitzeko.
- 15.4 Diziplinarako Barne Batzordeari dagokio espedientea irekitzea, eta espediente bakoitzerako izendatutako organo instruktoreari, berriz, ebazpena proposatzea. Zuzendaritza Nagusiari edo unean-unean Administrazio Kontseiluak izendatu dezakeen Klubaren exekutiboari, ordea, espedientea ebaztea edo Araudi honetan ezarritako baldintzetan zigorrak ezartzea dagokio.

## **16. ARTIKULUA.- DIZIPLINA ESPEDIENTEA ABIATZEKO AKORDIOA**

- 16.1 Diziplinarako Barne Batzordeak diziplina espedientea irekitzea egokitzen joz gero, gehienez ere 5 egun baliadun edukiko du interesdunari diziplina espedientea abiatzeko akordioaren berri emateko, ustezko arau haustearen berri eduki duen unetik kontatzen hasita. Akordioa argi eta zehatz idatzi beharko da, eta unean-unean jardunean dagoen Diziplinarako Barne Batzordeko arduradunak izenpetu beharko du. Akordioak hau jaso beharko du:
  - a. Diziplina espedientea irekitzea eragin duten egintzak, paragrafo berezietan eta zenbakituta;
  - b. Diziplina espedientearen azpian dauden zuzenbideko oinarriak, ustez egin den arau haustearen eta ezarri ahalko zaizkion zigorrak.
  - c. Espedientea garatzeko izendatzen den organo instruktoreak, instruktore batek osatua. Hutsegite larri eta oso larrietarako egingo da hori; izan ere, hutsegite arinetarako ez da beharrezkoa izango, Diziplinarako Barne Batzordeak berak egingo baitu dagokion ebazpen proposamena;
  - d. Prozeduraren xede ona bermatzeko eta arau hausteak jarraitzea edo arau haustearen errepikatzea ekiditeko beharrezkoak diren kautelazko neurrien ezarpena, kontuan izanda behin-behinekoak edo aldi baterako direla, ematen denetik prozesu bat ebatzi arte igarotzen den denbora tartearen menpe baitaude, eta kontuan hartuta, baita ere, neurriak aldatu daitezkeela,

baliogabetzea edo aldatzea ekarri dezaketen inguruabarrak egon daitezke eta;

- e. Interesdunak alegazioetarako duen epea; eta
- f. Interesdunak espedientea abiatzea ekarri duten gertakarien edo arau hausteen erantzule dela onartu ahal izateko duen moduan eta espedientea amaitutzat emateko eta arau hausteari dagokion zigorrak txikiena ezartzeko modua.

## **17. ARTIKULUA.- JAKINARAZPENAK**

- 17.1 Araudi honetan aurreikusitako jakinarazpen guztiak posta egiaztatu bidez egingo dira edota posta elektronikoki bidez interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazpena jaso duela adierazita; REAL SOCIEDAD DE FUTBOLek baimendutako langileen bitartez ere entregatu ahal izango zaio jakinarazpena espedientatuari zuzenean, jakinarazpenaren data, nortasuna eta edukia ere adierazita, Klubak bere zaleen datu basean eta Jarraitzaileen Erregistro Liburuan interesdunaren gainean duen informazioa –posta helbidea edo posta elektronikoa– erreferentziatuz hartuta.
- 17.2 Jakinarazpena REAL SOCIEDAD DE FUTBOLen Jarraitzaileen Erregistro Liburuan agertzen diren helbideetara bidali eta helbide horiek okerrak direlako edo posta helbidea edota posta elektronikoki aldatu eta helbide berriak jakinarazi ez direlako jakinarazpena egiterik egon ez bada, jakinarazpena Anoetako Estadioan dagoen jendearen arretarako bulegoko iragarki taulan jarriko da eta taula horretan hilabete eman eta gero jakinarazpena eginda dagoela joko da.
- 17.3 Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, jakinarazpena hark eskaeran adierazitako lekuan egingo da. Hori egiterik ez balego, artikuluko honen 1. Atalean ezarritakoaren arabera Jendearen arretarako bulegoko iragarki taulan jarriko da, jakinarazpenerako.
- 17.4 Benetako babes judizialaren printzipioaren arabera, Kluba behartuta egongo da interesdunak klubarekiko egindako idatzi guztiak alegaziotzat edo deskargu orritzat hartuz, idatzietan erabilitako bidea eta modua edozein direla ere (posta elektronikoki, Administrazio Kontseiluarentzako eskaera, Erreklamazio orriak, Klubeko lehendakariarentzako idatziak, etab.).

## **18. ARTIKULUA.- ALEGAZIOAK**

- 18.1 Espedientea abiatzeko akordioa jakinarazi ondoren, interesdunak 5 egun balioduneko epe luzaezina edukiko du, egokitzen irizitako alegazioak aurkezteko edo interesgarritzat jotzen dituen dokumentuak entregatzeko.
- 18.2 Erruztatuak jakinarazpenaren erantzunean edo alegazioen idatzian proposatu dezake Zuzenbidean onargarria den edozein froga egiteko bere interesen defentsarako.

## **19. ARTIKULUA.- FROGA ALDIA**

- 19.1 Instruktoareak aukera edukiko du gertakariak zehazteko eta egiaztatzeko egokiak diren eginbideak eta frogak eginarazteko, eta gertakariak argitzen eta zigortzeko moduko erantzukizunak erabakitzen lagundu dezaketen beste frogak batzuk egiteko eskatzeko ere. Organo instruktoreak ahalmena edukiko du interesdunak bere alegazioetan proposatutako frogak egiteko, betiere gertakariak argitzeko eta erantzukizunak erabakitzeke frogak egokiak, komenigarriak eta beharrezkoak badira.
- 19.2 Horretarako, instruktoreak 5 egun baliodun edukiko ditu egoki irizten diren frogak egiteko. Esandako epea interesdunaren alegazioak jasotzen den egunetik hasiko da kontatzen edo horretarako ezarri den epea halakorik egin gabe igaro arte.
- 19.3 Jardunbide horretan interesdunak proposatu ez dituen frogak sartu daitezke.
- 19.4 Azkenean instruktoreak erabaki dituen frogak egingo direla jakinaraziko zaio interesdunari, esku hartzea eduki dezan edo, kasuan-kasuan, egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal dituzan, Administrazio Prozedura Erkidearen arabera.
- 19.5 Interesdunak eskatuta gastuak dakartzaten frogak egin behar badira, organo instruktoreak dirua jartzeko eskatu ahal izango dio interesdunari, frogak egin ondoren likidazioa egiteko erreserba gisa.
- 19.6 Organo instruktoreak frogak gainean egiten duen balorazioa ebazpen prozeduran txertatu behar da.

## **20. ARTIKULUA.- EBAZPEN PROPOSAMENA**

- 20.1 Froga proposatzeko eta, kasua bada, froga egiteko dagoen epea bukatu eta hurrengo 5 egun baliodunen barruan, edo alegazioak aurkezten direnetik edo alegazioak aurkezteko epea alegazioak aurkeztu gabe bukatzen den unetik aurrera frogarik egin ez bada, instruktoreak aukera hauetako bat proposatu eta jakinaraziko du:
- a. Espedientea artxibatzea,
  - b. Ebazpena proposatzea, ebazpenean funtsean hau jasota:
    - i. Gertakarien azalpena:
    - ii. Gertakarien kalifikazio juridikoa, egindako arau haustek erabakitzeko;
    - iii. Erruztatuaren edo erruztatuen erantzukizunak, bai eta ezarri beharreko zigorraren proposamena ere; eta
    - iv. Interesdunak gertakarien erantzulea dela aitortzeko duen modua, eta horrela espediente hau amaitutzat emateko.
- 20.2 Aurrekoaz gain, ebazpen proposamenean erabakiko da espedientea besterik gabe bidaltzea Diziplinarako Barne Batzordera (REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko Zuzendaritza Nagusia edo Administrazio Kontseiluak unean-unean izendatzen duen Klubeko exekutiboa). Espedienteari atxikita interesdunak ebazpen proposamena jaso eta hurrengo 5 egun balioduneko epean aurkeztutako behin-behineko alegazioak bidaliko zaizkio, espedientea araudi honek ezartzen duenaren arabera ebatzi ahal dezan.

## **21. ARTIKULUA.- ESPEDIENTEAREN EBAZPENA**

- 21.1 Organo Instruktoarearen ebazpen proposamena jaso eta gero, Diziplinarako Barne Batzordeak (Klubeko Zuzendaritza Nagusia edo Administrazio Kontseiluak unean-unean izendatzen duen Klubeko exekutiboa) espedienteak ebatzi eta interesdunei ebazpenaren berri emango die, espedientearen dagoen dokumentazioaren era Diziplina Araudi honen arabera dagozkion zigorrak jakinarazita.

## **22. ARTIKULUA.- ZIGOR EBAZPENAK GAUZATZEA**

- 22.1 Ezartzen diren diziplinazko zigorrak beterezleak izango dira Araudi honetan

ezarritakoaren arabera irmoak diren unetik, alde batera utzita une jakinean ezarritako kautelazko neurriak edo behin-behineko neurriak. Zigorra zenbatzeko, berriz, arau haustea egin zenetik kautelazko edo behin-behineko neurri horren ezarpenaren arabera arau haustea ebatzi arte abonatu izaera etenda eduki duen denbora edota partidak hartuko dira aintzat.

### **23. ARTIKULUA.- APARTEKO ERREKURTSOA**

- 23.1 Espedientearen ebazpena jakinarazi eta gero, interesdunak aparteko errekurtsu bat aurkeztu ahal izango du. 15 egun natural edukiko ditu aparteko errekurtsu hori aurkezteko, Espedientearen ebazpena REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko Administrazio Kontseiluari jakinarazten zaion egunetik aurrera, egoki iritzitako guztiak alegatzeko.
- 23.2 REAL SOCIEDAD DE FUTBOLeko Administrazio Kontseiluak errekurtsua jaso ondoren egiten duen lehen ohiko bileran ebatziko du aparteko errekurtsua, eta ebazpena motibatuta egon beharko da.
- 23.3 Errekurtsuaren gaineko eztabaidan eta berrikuspenean ez dute esku hartuko prozeduraren instrukzio fasean Organo Instruktoare gisa parte hartu dutenek, baina bai esku hartu ahal izango dute azalpenak edota argibideak emateko.
- 23.4 Hartzen den erabakia erruztatuari jakinarazi beharko zaio, eta erabaki horrekin amaiera emango zaio zigor espedienteari, Araudi honen ezarritakoaren arabera; izan ere, aparteko errekurtsu honekin arau hauei dagozkien errekurtsuak agortzen dira. Halere, interesdunak ohiko jurisdikziora jo dezake.

### **24. ARTIKULUA.- ZIGORREN PRESKRIPZIOA**

- 24.1 Arau hauste oso larriengatik ezarritako zigorrak 3 urtera preskribituko dira; arau hauste larriei ezarritakoak 2 urtera, eta arau hauste arinei ezarritakoak 6 hilabetera.
- 24.2 Zigorra ez betetzearen ondoriozko preskripzio epea zigor ebazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen.

